

---

---

# 2002 URTEKO EKINTZAK

---

---

Gabon, Jaun-andreok

Leengo urteko ekintzen azalpena emon aurretik, Yon Egileor, gure batzordeko idazkariaren eriotza, sarrera antzera aipatu bear dautsuet. Galpen andia gure batzordean, egiten eban lana oso zeatz eta ondo beteten ebalako, oi eban lez isillik eta zeaztasunik andienaz. Onezaz gaiñera, gure egutegiko lankide genduan, landaretza saillean lan jakintsua egiten ebana, nekazaritza-saillean baimenduna zalako. Euskaltzale eta lagun on bat galdu dogu, eta guztioi zuen gomutamenean gorde dagizuela eskatzen dautsuet, otoi batez lagunduta.

## EUSKAL IKASTAROA

Beti lez, gure erakundeak Urrilla'n euskal ikasleentzat oiko ikastaroa atondu dau, eta betiko itxuran izenak emon izan dira, bizkaiera ikasi gura dabenezat. Ba-dira ogeitabost urte baiño geiago eten barik euskera-ikastaroak gure etxean emoten doguzala.

## EUSKAL ASTEA

Igarotako Azilla'n oikoa dan lez, Euskal Astea atondu genduan Bilbao'ko Udalaren laguntzaz, 25'tik 29'ra. Ona emen jarraian emondako gaiak eta itzularien izenak:

- Bertsolaritza: Legarreta'tar Asier.
- Euskaldunak Europan: Atutxa'tar Paul.
- Leenengo kristiñauak Mungialdea'n: Olazar'tar Martin
- "36'ko gudaldian su-iskillotutako idazle gazteak": Latxaga, Atutxa eta Olazar.
- Emeterio Arrese olerkari giputza: Zubiri'tar Iñaki.

Itzaldiak oso zudugarriak izan ziran, eta entzuleen kopuru polita aditzeko etorri zan. Emondako gaiak "Zer" gure aldizkarian agertzen asi dira.

## IPUIN-SARIKETA

Idazle barriak sortzeko, eta irakurleen euskerarekiko zaletasuna piztuteko, urteko azken aldian oiko Ipuin-Sariketa atondu dogu.

Ona emen, leiaketa orren sailkapena:

- 1'goa . . . . . MURUA'tar JOSE MARI JAUNA
- 2'gna . . . . . ARRINDA'tar ANES JAUNA
- 3'gna . . . . . AURRE APRAIZ'tar BALENDIN JAUNA
- 4'gna . . . . . LEGARRETA'tar ASIER JAUNA
- 5'gna . . . . . NARBAITZA'tar ALBERTO JAUNA

Sariak, oneik izan dira:

- 50.000 . . . . .- 300'50 euro
- 40.000 . . . . .- 240'40 euro
- 30.000 . . . . .- 180'30 euro
- 20.000 . . . . .- 120'20 euro
- 10.000 . . . . .- 60'10 euro

## EGUTEGIA

Betiko oitureari jarraituz 2003 urteko egutegia gertatu genduan, Bizkai-Bilbao'ko Aurrezki Kutxaren diru-laguntzaz, eta "Euskerazaleak" erakundeak atonduta. Arrakasta andia lortu dau dalako egutegiak, eta aleak artu daitekez BBK etxeetan, Aurten be datorren urtekoa atontzen asi gara.

## "ZER" ALDIZKARIA

Bizkaieraz argitaratutako aldizkari bakarra kalera urten da gure izkuntzaren aberasgarria izan daiten, ain gitxiko laguntza gure bizkaierak artzen dauanean. Gai asko ta jakingarriak Olazar'tar Martiñ'en zuzendaritzapean agertzen ditu aldizkari maite onek, eta gure etxeetan sartzen dan aize garbiaren antzeko dan aldizkari onek zuen egoitzak aberasten jarraituko dau Jaungoikoak Lagun. Eta bizirik iraun dagian, bearreko da guztion diru-laguntza, eta idazle zintzoen idazlanak bizi-arnasa artu dagian. Bialdu egizuez beraz, zuen idazlanak.

## LAGUNTZAK

Azaldutako ekintzak burutzeko, bearrekoa da guztien diru-laguntza, bestelan euskeraren aldeko gure asmoak ustel urtengo litzakiguz. Eralguntzak gero ta andiago, eta sarrerak ostera, gero ta urriago dirala neketsu egiten da gure adoreari eustea. Erri txikietan batez be arpidetza-dirua jasotea oso zailla da, eta orregaitik bearrekoa da arpidedun bakoitzak BBK'an dogun kontu agirian urteko saria sartzea.

Edozelan be, eskertu bear dogu, Bizkai'ko Foru Aldundiko Kultur Sailletik jasotako diru-laguntza, Bilbao'ko udaletikoa, BBK'tikoa, eta Eusko Jaurlaritzakoa.

Eta beste barik, biotzez agurtzen zaituet.

**Zubiri'tar Iñaki  
Lendakaria**

---

---

**ZORIONTSUA IZATEKO BESTE  
BATZUK IRAINTZEN DAUZANA,  
ONEIK BE ZORIONTASUNAREN  
BILLA DABELTZANEAN, ORI EZ DA  
SEKULA IZANGO ZORIONEKO.**

BUDA'K

---

---